2026SCOU0003

DEBAKO TOKIKO ZAINTZA EKOSISTEMA MARTXAN JARTZEKO AHOLKULARITZA TEKNIKOA EMATEKO BALDINTZA PLEGU TEKNIKOAK

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE ASESORAMIENTO TÉCNICO PARA LA PUESTA EN MARCHA DEL ECOSISTEMA LOCAL DE CUIDADOS DE DEBA

1.- AURREKARIAK.

Gaur egungo zaintza eredua aztertzeko beharrari osotasunean heltzea erabaki zuen Debako Udalak, eredu hori jasaten ari den krisia ikusita eta aldaketa bat beharrezkoa dela sinetsita. Hasieratik ikusi zen beharrezkoa zela, bai maila teknikoan, bai politikoan, eremu horren dimentsioa eta erpin ugariak kontuan hartuta, herritarrekin batera egitea, bai egin beharreko gogoeta, bai eman beharreko urratsak.

Gainera, Covid19aren krisiak bereziki agerian utzi zuen zaintzaren krisia eta adinekoen zaintza eredua aldatzeko beharra.

Aipatutakoez, gain, Debako adinekoen egoera eta interesak ezagutzera bideratutako diagnostikoek eta azken urtean eskualdean garatutako zainketa-erregimenari buruzko diagnostikoak gaia lantzeko beharra berretsi besterik ez zuten egin. Ezinbestekoa da zaintzari heltzea, eta modu partekatuan egin behar da.

Horrela jokatzea, zaintzaren kultura sustatuz, garrantzitsua da erantzukidetasunaz hitz egin behar delako, zaintza zerbitzuei balio sozial eta politikoa emanez, zaintzen duen herri bat izateko, ikuspegi komunitario eta sustraitutako batean oinarritua.

Hala, Udalak prozesu parte hartzaile bat abiatu zuen 2024ko otsailean, Deban zaintzaren errealitatea zein zen ezagutzeko, eredua aztertzeko eta aldaketaren beharra mahai gainean jartzeko, helburu nagusia zaintza

1.- ANTECEDENTES.

El Ayuntamiento de Deba decidió abordar en su totalidad la necesidad de estudiar el modelo actual de cuidado, vista la crisis que este modelo está sufriendo y ante el convencimiento de que un cambio es necesario. Desde el principio se vio la necesidad, tanto a nivel técnico como político, dada la dimensión y los múltiples vértices de este ámbito de hacerlo junto con la ciudadanía, tanto la reflexión como los pasos necesarios que se tuvieran que dar.

Además, la crisis de la Covid19 evidenció especialmente la crisis del cuidado y la necesidad de cambiar el modelo de cuidados de las personas mayores.

Además de lo mencionado, los diagnósticos orientados a conocer la situación y los intereses de las personas mayores de Deba y el diagnóstico sobre el régimen de cuidados desarrollado en la comarca durante el último año no hicieron sino confirmar la necesidad de trabajar el tema. Es imprescindible abordar el cuidado y debe hacerse de forma compartida.

Actuar de esta manera, fomentando la cultura del cuidado, es importante porque hay que hablar de corresponsabilidad, aportando valor social y político a los servicios de cuidado para ser un pueblo que cuida, basado en una visión comunitaria y con arraigo.

Así, el Ayuntamiento inició un proceso participativo en febrero de 2024 para conocer cuál era la realidad del cuidado en Deba, analizar el modelo y poner sobre la mesa la necesidad del cambio, con el objetivo principal

ekosistema berri bat modu kolektiboan diseinatzea izanik. Ikuspegi publiko-pribatu-komunitario batetik zainketa-beharra duten adinekoei egingo zaien ostatuari buruzko hausnarketa kolektiborako aukeraren bidez.

de diseñar de forma colectiva un nuevo ecosistema de cuidados. A través de la oportunidad de reflexión colectiva del futuro alojamiento de personas mayores con necesidad de cuidados desde una mirada público-privada-comunitaria.

Analisiaren zati bat izan zen irudikatzea nola birpentsatu zaintza eredua, eta nola zaindu eta zainduak izan nahi dugun. 2024ko otsailean hasitako bideak halako galderei erantzun nahi zien: nolakoa da gaur egun Deban dugun zaintza eredua? Zer eginkizun dute pertsonak, familiek, enpresek, komunitateak eta/edo erakundeek? Nola imajinatzen dugu zainketa-ekipamendu bat Debako herritarrentzat?

Parte del análisis consistió en imaginar como repensar el modelo de cuidado y cómo queremos cuidar y ser cuidadas. El camino iniciado en febrero de 2024 pretendía responder a preguntas de este tipo: ¿cómo es el modelo de cuidado que tenemos hoy en día en Deba? ¿Qué papel juegan las personas, las familias, las empresas, la comunidad y/o las diferentes organizaciones? ¿Cómo nos imaginamos un equipamiento de cuidados para la ciudadanía de Deba?

Galdera horiei erantzuna bilatzean, aurrera eraman zen prozesuak kontuan izan zituen, eta kontuan izaten jarraitu behar ditu, bestek beste, gizarte-zaintzaren kultura partekatua, zaintza-lanaren balio sozial eta politikoa, erantzukidetasuna, zainketen ikuspegi komunitarioa eta arrazakeriaren aurkako ikuspegi feminista.

En la búsqueda de respuestas a estas preguntas, el proceso que se llevó adelante tuvo, y debe de seguir teniendo, en cuenta, entre otros, la cultura compartida del cuidado social, el valor social y político del trabajo del cuidado, la corresponsabilidad, el enfoque comunitario de los cuidados y la inclusión de una visión antirracista y feminista.

Pertsona ardatz duen arreta-eredua lehenesten da, kontuan hartuz eta lehenetsiz zaintzaren beharra duen pertsonaren zein zaintzailearen nahiak, eskubideak eta ongizatea, guztien eskubideak bermatuz.

Se prioriza un modelo de atención centrado en la persona, teniendo en cuenta y priorizando los deseos, los derechos y el bienestar tanto de la persona que requiere cuidados como de la persona cuidadora, garantizando los derechos de todas y todos.

Proiektu osoak zaintzaren ikuspegi komunitarioa du oinarri (tokiko ekosistema), eta metodologia parte-hartzaileak kontuan hartzen dira Debako udalerriko hainbat eragile eta pertsonen inplikazioa bermatzeko. Pertsonak eta sistemak lantzen dira, zaintza bere osotasunean analisiaren erdigunean jarriz eta udalerriko jarduerak eta politikak sostengatuko dituen gizarte-zaintzaren kultura partekatua sortzea bilatuz.

El proyecto en su conjunto se basa en una visión comunitaria del cuidado (ecosistema local), y se tienen en cuenta las metodologías participativas para garantizar la implicación de diferentes agentes y personas del municipio de Deba. Se trabaja sobre las personas y los sistemas, poniendo el cuidado en su conjunto en el centro del análisis y buscando crear una cultura compartida del cuidado social que sustente las actividades y políticas del municipio.

Zaintza sistema zatikatuta dagoela kontuan hartuta, iraupen luzeko zainketak behar

Teniendo en cuenta que el sistema de cuidado está fragmentado, cuando se precisan cuidados

direnean, beharrezkoa da sistemen eta zerbitzuen arteko lan koordinatua egitea, pertsonak konponbide desberdin eta malguak behar baititu, ikuspegi global eta ekosistemiko batetik proposatuak, bere bizi-proiektua gauzatzeko.

de larga duración es necesario llevar a cabo una labor coordinada entre sistemas y servicios, ya que la persona necesita soluciones diferentes y flexibles, propuestas desde una visión global y ecosistémica para llevar a cabo su proyecto de vida.

Zaintza sektorea erabat feminizatua izanik, ezinbestekoa da aztertzea sexu/genero sistemak maila guztietan nola eragiten duen “social care” (zaintza soziala) deritzonaren eraikuntzan, benetako berdintasunean oinarrituta egon dadin.

Estando el sector de cuidados totalmente feminizado es fundamental analizar el sistema sexo/género como influye en la creción del “social care” (cuidados sociales) en todos los niveles para que este basado en una igualdad real.

Debako ekosistema osatzeko bidea oinarri sendoak dituen prozesu parte-hartzaile baten bidez abiatu dute. Aurreko fasearen emaitza ezinbestekoa da oinarriak finkatzeko, eta fase berri hau oinarria izango da hurrengoa garatzen jarraitzeko.

El camino para completar el ecosistema de Deba se ha iniciado a través de un proceso participativo. El resultado de la fase previa es indispensable para iniciar el asentamiento de las bases y esta nueva fase servirá de punto de partida para seguir desarrollando la siguiente.

Hirugarren fasea eraldaketarako bidea dela esan daiteke. Hasitako pilotajea hedatu eta bide laguntza sendotzea izango dira adar nagusiak, komunikazio estrategiak martxan jartzearekin batera. Gizarte zerbitzuek, kasu kudeaketa sistematizatzen jardungo dute ekosisteman sakontzen jarraitzen duten bitartean.

La tercera fase puede considerarse como un camino hacia la transformación. El despliegue del pilotaje iniciado y la consolidación del acompañamiento serán los principales ejes, junto con la puesta en marcha de estrategias de comunicación. Los servicios sociales se dedicarán a sistematizar la gestión de casos mientras siguen profundizando en el ecosistema.

Aurreko faseetan talde operatiboetan zaintza ekosistema herrian zabaldu eta partekatu behar den proiektu bat dela landu ondoren 2026. urtea komunikazio estrategia lantzea ardatz izango da.

Después de haber trabajado en fases anteriores en los grupos operativos que el ecosistema de cuidados es un proyecto que debe extenderse y compartirse en la ciudadanía, durante el año 2026 uno de los pilares será la elaboración de la estrategia de comunicación.

2024. urtean egindako zaintza kalera aktibitatea berreskuratzearekin bat, sentsibilizazio kanpaina desberdinak eta sare sozialetan, etorkizunean zaintzen gidaritza eramango duten herritarrei, azken urteetan egindako lanaren berri emango zaie.

Junto con la recuperación de la actividad de “cuidados a la calle” realizada en el año 2024, se darán a conocer en las redes sociales a los ciudadanos/as; que en el futuro llevarán el liderazgo de los cuidados, las diferentes campañas de sensibilización y el trabajo realizado en los últimos años.

2.- DEBAKO ZAINTZA-EKOSISTEMA LOKALA EGONKORTZEKO ETA INDARTZEKO PROIEKTUA.

1.- Proiektuaren lehen fasea: Debako zaintza ekosistema osatzeko oinarriak finkatzea, prestaketa fasea eta diagnostikotik eratorritako ekintzak hartzea.

2.- Proiektuaren bigarren fasea: eraldaketara bideratutako proposamenak inplementatzea, bigarren fasean finkatutako oinarriak kontuan hartuta.

Proiektua ekintzen etengabeko ebaluazio-prozesuaren mende egongo da.

3.- LIZITAZIOAREN XEDEA.

Lizitazioaren xedea da Debako zaintza ekosistemaren oinarriak finkatzeko aholkularitza teknikoa ematea, eta Udalari bertako ekosistema egonkortzeko eta indartzeko pausoak ematen laguntzea.

Egin beharreko bide horretan, ezinbesteko baldintza da sustatu nahi den zaintza ereduaren ardatza pertsonarengan zentratutako arreta ereduan oinarrituta egotea; gainera, sortzen den tokiko ekosistemak gertuko zerbitzuen erabilera sustatuko du, zaintzan jarraipena bermatuko du, zaintza soziosanitarioen integrazioa bilatuko du, baita pertsona bere etxean ahal den neurrian mantentzea ere (pertsonaren borondatea hori dela ulertuta) eta hori ezinezkoa denean, etxean eta bere ingurunean bezala bizi dela bermatzen saiatuko da.

Finean, eredua pertsona erdigunean jartzera bideratuko da, lehenik eta behin pertsonaren nahia bermatzen saiatuz, bere bizitzari zentzua ematen diona kontuan hartzen eta hori errespetatzen dela ziurtatuz, aldi berean pertsona guztien eskubideak bermatu behar direla kontuan hartuta.

2.- PROYECTO DE CONSOLIDACIÓN Y REFUERZO DEL ECOSISTEMA LOCAL DE CUIDADOS DE DEBA.

1. Primera fase del proyecto: consolidar las bases para completar el ecosistema de cuidados de Deba, fase de preparación y toma de acciones derivadas del diagnóstico.

2. Segunda fase del proyecto: implementación de propuestas orientadas a la transformación teniendo en cuenta las bases fijadas en la primera fase.

El proyecto estará sujeto a un proceso de evaluación continua de las diferentes acciones.

3.- OBJETO DE LA LICITACIÓN.

El objeto de la licitación es ofrecer asesoramiento técnico para consolidar las bases del ecosistema de cuidados de Deba, y ayudar al Ayuntamiento a dar pasos para la estabilización y refuerzo del ecosistema local.

En este camino a recorrer, es condición indispensable que el eje del modelo de cuidado que se pretende promover esté basado en el modelo de atención centrada en la persona (ACP); además, el ecosistema local que se cree fomentará el uso de los servicios de proximidad, garantizará la continuidad de los cuidados, buscará la integración de los cuidados sociosanitarios, así como el mantenimiento de la persona en su domicilio en la medida de lo posible (entendiendo que es esa la voluntad de la persona) y, cuando esto no sea posible, se tratará de garantizar que viva como en casa y dentro de su entorno.

Al fin y al cabo, el modelo se orientará a situar a la persona en el centro, tratando de garantizar la voluntad de la propia persona, intentando tener en cuenta lo que da sentido a su vida y tratando de asegurar que esto se respeta, teniendo en cuenta que, al mismo tiempo, se deben garantizar los derechos de todas las personas..

4.- KONTRATAZIOAREKIN LORTU NAHI DIREN HELBURUAK.

4.1. Helburu nagusia:

Debako Udalari laguntza ematea tokiko zaintza-ekosistema gauzatzeko, indartzeko eta egonkortzeko, lehen diagnostiko- eta ebaluazio-fasetik abiatuta, Debako zaintza-ekosistema abian jartzeko oinarriak finkatuz, ibilbide-orria zehaztuz eta proiektu/prozesu osoan aholkularitza teknikoa emanez.

4.2. Helburu zehatzak:

a) Debako zaintza-ekosistema egonkortzeko eta indartzeko ibilbide-orria zehaztea.

b) Debako zainketa-ekosistemaren diagnostiko- eta ebaluazio-fasetik eratorritako ekintzak martxan jartzea.

c) Zaintzarako eredu/ekosistema berrietan prestatzea (Udala, udalerriko baliabide publiko eta pribatuak, herritarrak…)

d) Gizarte-zerbitzuetako taldeari laguntza ematea egungo arreta-eredutik pertsona (oro har) ardatz duen arreta-eredurako trantsizioan, kasuak kudeatzeko metodologiaren aplikazioa indartuz edo martxan jarriz.

e) Egunerokoan zaintzan ari diren pertsonen behar berriak identifikatzea eta irtenbide berritzaileak bilatzea.

f) Testuinguru eta behar berrietara egokitzea, eskaintza edo aukera berriak sortuz eta sormena bultzatuz.

g) Herrian dauden eragileek pertsona bakoitzaren bizi proiektuan nola eragin dezaketen aztertzea, onurak dakartzatela jakinda, eta hori gauzatzeko beharrezkoak diren ekintzak martxan jartzea.

h) Pertsonak, bere bizi-proiektua gauzatzeko orduan komunitateak duen garrantzia

4-OBJETIVOS QUE SE BUSCAN CON LA CONTRATACIÓN

4.1. Objetivo principal:

Apoyar al Ayuntamiento de Deba en la ejecución, refuerzo y estabilización del ecosistema local de cuidados a partir de los primeros pasos de diagnóstico y evaluación, consolidando las bases para la puesta en marcha del ecosistema de cuidados de Deba, definiendo la hoja de ruta y prestando asesoramiento técnico a lo largo de todo el proyecto/proceso.

4.2. Objetivos específicos:

a) Definir la hoja de ruta para la consolidación y refuerzo del ecosistema de cuidados de Deba.

b) Poner en marcha las acciones derivadas de la fase de diagnóstico y evaluación del ecosistema de cuidados de Deba.

c) Formar en nuevos modelos/ecosistemas de cuidados (Ayuntamiento, recursos públicos y privados del municipio, ciudadanía...)

d) Apoyar al equipo de servicios sociales en la transición del modelo de atención actual al modelo de atención centrada en la persona (en su conjunto), reforzando o poniendo en marcha la aplicación de la metodología de gestión de casos.

e) Identificar las nuevas necesidades de las personas que están en el a día a día en el cuidado y buscar soluciones innovadoras.

f) Adaptar y adecuarse a los nuevos contextos y necesidades, creando oferta o nuevas oportunidades impulsando la creatividad.

g) Analizar cómo los/las agentes presentes en la localidad pueden incidir en el proyecto de vida de cada persona, sabiendo que aportan beneficios, y poner en marcha las acciones necesarias para llevarlo a cabo.

h) Sentar las bases para que la persona, teniendo en cuenta la importancia de la

kontuan hartuta, lotura hori egiteko bidea finkatzeko oinarriak jartzea; modu erantzunkide batean, borondatezko jarduera zaintzaren esparrura zabaltzea.

comunidad a la hora de llevar a cabo su proyecto de vida, asiente el camino para hacer este vínculo; de forma corresponsable, extender la actividad voluntaria al ámbito del cuidado.

i) Boluntarioen jarduerak eta bitartekoak lantzea, boluntarioak udalerriko zainketen esparruan jardun daitezen.

i) Trabajar las actividades voluntarias y los medios para que las personas voluntarias ejerzan su actividad en el ámbito de los cuidados en el municipio.

j) Koordinazio soziosanitarioan eragitea. Gizarte-eremuaren (gizarte-zerbitzuak) eta osasun-eragileen arteko harremana diagnostikatzea eta birdefinitzea, Deban koordinazio soziosanitarioa bultzatuz eta ezarriz, eta sistemen arteko koordinazioan eraginez.

j) Incidir en la coordinación sociosanitaria. Diagnosticar y redefinir la relación entre el ámbito social (servicios sociales) y los agentes de salud, impulsando e implementando la coordinación sociosanitaria en Deba, incidiendo en la coordinación entre sistemas.

k) Zaintzak guztioi (pertsonei, administrazioei, komunitateei, eragileei, enpresei…) eragiten digunez, sentsibilizazioan sozializatzea eta eragitea, erantzukidetasunaren ikuspegitik. Horren adierazgarri, eremu guztietatik ekarpenak izango dituen ibilbide bat definitu eta egitea.

k) Como el cuidado nos afecta a todas (personas, administraciones, comunidades, agentes, empresas...), socializar e incidir en la sensibilización desde una perspectiva de corresponsabilidad. Como consecuencia de ello, definir y realizar un itinerario con aportaciones desde todos los ámbitos.

Herritarra sentsibilizatzea, oro har, elkar zaintzan eragile aktibo izateak herri zaintzailea izateko duen balioaz.

Sensibilizar a la ciudadanía en general sobre el valor de ser un agente activo en el cuidado mutuo para ser un pueblo cuidador.

l) Zaintza sareko “Deba Herrilab” elikatzen jarraitu, Deba zaintza herria dela kontuan hartuta.

l) “Deba Herrilab” de Zaintza sarea. Seguir alimentándolo, teniendo en cuenta que Deba es un pueblo de cuidados.

m) Arlokako zaintza-ekosisteman adostutako aldaketak ezartzea.

m) Implementar los cambios consensuados en el ecosistema de cuidados por áreas.

n) Zaintza ekosisteman adostutako aldaketen inplementazio sektorialaren jarraipena egitea.

n) Hacer un seguimiento de la implementación sectorial de los cambios consensuados en el ecosistema de cuidados.

o) Debako ekosistema lokalaren inplementaziotik eratorritako aldaketen inguruko komunikazio-beharrak garatzea.

o) Desarrollar las necesidades de comunicación en torno a los cambios derivados de la implementación del ecosistema local de Deba.

p) Debako zaintza-ekosistemaren bilakaeraren berri herritarrei modu ulergarri, jarraitu eta hurbilean ematea.

p) Dar a conocer la evolución del ecosistema de cuidados a los ciudadanos/as de forma cercana, continuada y comprensible.

q) Herritarrak zaintzaren eragile aktibo gisa kokatzea.
r) Egindako lana balioan jartzea eta legitimatzea.
s) Komunikazio-estrategia espezifiko bat diseinatzea 2026rako, aurreko urteetako ibilbidean oinarrituta.

q) Emplazar a los ciudadanos como promotores activos.
r) Legitimar y poner el valor el trabajo hecho.
s) Diseñar una estrategia de comunicación específica para el año 2026 basada en el itinerario hecho los años anteriores.

Ebaluazioari dagokionez:

En cuanto a la evaluación:

t) Egindako prozesu osoaren ebaluazioak nolakoa izan behar duen definitzea.
u) Prozesua oro har ezartzearen ondorioak ebaluatzea.
v) Debako zaintza-ekosistema berritzailearen esparruan ematen diren urratsek biztanlerian duten inpaktua aztertzea, neurtzea, lehendik dagoen ereduarekin alderatuta.
w) Tokiko ekosistemaren eraldatze-prozesutik eratorritako aldaketak ebaluatzea, eta zaintzaile profesionalengan izandako hobekuntzak ebaluatzea (pertsonen egoera proiektu guztian zehar).
x) Egindako prozesu osoa dokumentatzea: Txostenek/memoriek/ebaluazioek genero-ikuspegia eta intersekzionalitatea kontuan hartu beharko dituzte.

t) Definir cómo debe ser la evaluación del proceso realizado en su conjunto.
u) Evaluar los efectos de la implementación del proceso en su conjunto.
v) Analizar, medir el impacto en la población de los pasos que se dan en el marco del innovador ecosistema de cuidados de Deba respecto al modelo preexistente.
w) Evaluar los cambios derivados del proceso de transformación del ecosistema local, evaluando las mejoras producidas en las personas cuidadoras profesionales (la situación de las personas en todo el proyecto).
x) Documentar todo el proceso realizado: Los informes/memorias/evaluaciones deberán tener en cuenta la perspectiva de género y la interseccionalidad.

5.- METODOLOGIA

Parte-hartzea izango da proiektua aurrera eramateko oinarria.

Kontuan hartuta ikerketa, parte-hartzearen ekintza eta gizarte-lan komunitarioa, komunitateak berak identifikatu behar du zer aldatu behar den egungo errealitatetik, eta, hori aldatzeko, komunitatea bera da aldaketaren protagonista, talde eragile batean ordezkatuta.

Talde eragilea arlo guztietako ordezkariek osatzen dute jada (ordezkari politikoak, udal gizarte Zerbitzuak, enpresak edo zerbitzuak,

5.- METODOLOGÍA

La participación será la base para llevar a cabo el proyecto.

Teniendo en cuenta la investigación, la acción en la participación y el trabajo social comunitario, es la propia comunidad la que debe identificar lo que debe cambiar desde su realidad actual, y, para cambiarlo, es la propia comunidad, representada en un grupo motor, la que se convierte en la protagonista del cambio.

El grupo motor está ya formado por representantes de todos los ámbitos (representantes políticos, servicios sociales

tokiko eragileak/komunitatea, zaintza intentsitate ertain-altuak jasotzen duten pertsonak, familia zaintzaileak, zaintzaile profesionalak, osasun sistemako ordezkaria…).

Talde guztiek beren lan-dinamika izango dute, eta lan sakona egingo dute bakoitzak bere esparruan. Aldi berean, talde motorrak bere bidea egingo du, eta talde bakoitzeko ordezkari batek talde eragilean jardungo du.

Lehen adierazi bezala, gizarte-zerbitzuen sistema publikoarekin lan egingo da arreta-eredua aldatzeko, eta koordinaziorako eta bateratutako gobernantzarako espazio partekatuak sortuko dira.

6.- EGIN BEHARREKO LANA.

Beharrezkoa da iraupen luzeko ekosistema lokala egonkortzeko eta indartzeko prozesua aurrera eramatea, Deba zaintzeko eta artatzeko. Zainketen tokiko ekosistema garatzea, zehazki. Zeregin hori hainbat taldetan egitea aurreikusten da.

Proiektu osoan zehar, talde eragilea (aurreko METODOLOGIA atalean aipatutakoa) izango da prozesuaren oinarri eta gida, eta talde horretan parte hartuko dute Debako zaintza-ekosisteman inplikatutako talde guztietako ordezkariek.

Talde motorraren helburua da ekintza plana diseinatzea, ekosistemaren eredua definitzea eta horretarako jarraitu beharreko prozedura diseinatzea. Talde eragilea osatzen duen pertsona bakoitzaren ardura izango da bere jarduera-eremuan (bere talde operatiboan) hausnarketa bultzatzea eta bertan beharrezkoak diren aldaketak sustatzea. Esleipendunak talde motorrak bere helburua lortzeko aukera emango du.

municipales, empresas o servicios, agentes locales/comunidad, personas que reciben una intensidad de cuidado media-alta, cuidadores/as familiares, personas cuidadoras profesionales, representantes del sistema sanitario...)

Todos los grupos tendrán su propia dinámica de trabajo y realizarán una labor en profundidad en su ámbito propio, al tiempo que, de forma paralela, el grupo motor hará su propio camino y un representante de cada grupo actuará en el grupo motor.

Tal y como se ha recogido anteriormente, se trabajará con el sistema público de servicios sociales para implementar un cambio de modelo de atención y se generarán espacios compartidos de coordinación y cogobernanza.

6.- TRABAJO A REALIZAR.

Es necesario llevar a cabo el proceso de estabilización y refuerzo del ecosistema local de larga duración para la atención y el cuidado de las personas que viven en Deba; desarrollar el ecosistema local de cuidados, concretamente. Se prevé que esta tarea se desarrolle en varios grupos.

A lo largo de todo el proyecto, el grupo motor (mencionado en apartado METODOLOGÍA anterior) será la base y guía del proceso, grupo en el que participarán representantes de todos los grupos implicados en el ecosistema de cuidados de Deba.

El objetivo del grupo motor es diseñar el plan de acción, definir el modelo del ecosistema y diseñar el procedimiento a seguir. Será responsabilidad de cada persona que forma parte del grupo motor, establecer los canales de comunicación y trasladar las reflexiones de manera bidireccional: grupo motor-grupo operativo.

Talde motorraz gain, beharrezkotzat jotzen da 4-6 talde operatibo sortzea.

- Zerbitzuak. Zainketak eskaintzen/ematen dituztenen taldea.
- Komunitatea. Pertsona partikularrak edo entitateen ordezkariak.
- Zainketa behar duten pertsonak (mendekotasun egoeran dauden pertsonak eta zaintzaileak: Talde hori azpitaldetan bana daiteke une batzuetan.
- Koordinazio soziosanitarioko taldea.
- Gizarte zerbitzuetako lantaldea.

Antolaketa horrek aldaketaren bat izan dezake prozesuan zehar.

Hauek dira talde operatibo bakoitzean egin beharreko lan nagusiak (4-6, hasieran):

1.- Hasierako egoeraren diagnostiko zehatza taldeka aztertzea, Deba zaintzea ekosisteman definitutakora, printzipioetara eta ezarritako arreta-eredura egokitzen sakonduz.

2.- Esparru bakoitzean beharrezkoa den prestakuntzaren beharra aztertzea.

3.- Diagnostiko-fasean nahiz beste talde operatibo batzuetan hautemandako eta talde motorrean partekatutako beharrei erantzunak, irtenbideak eta aukera berriak sortzea edo erakustea.

Talde estrategikoa martxan egongo da aipatutako taldeak martxan jarri aurretik ere. Lan-eremu hori Udaleko arduradun tekniko eta politikoek osatzen dute, eta taldeak, enpresa esleipendunak, bertan parte hartu beharko du, proiektua/prozesua koordinatzeko zentroa baita. Talde horretan, kontratua indarrean dagoen bitartean udal-arduradunek erabakitzen dituzten adituek edo ordezkariek ere parte hartu ahal izango dute.

Además del grupo motor, se considera necesario formar entre 4 y 6 grupos operativos.

- Servicios. Grupo de quienes ofrecen/prestan cuidados.
- Comunidad. Personas particulares o en representación de entidades.
- Personas con necesidad de cuidado (personas en situación de dependencia) y personas cuidadoras. Este grupo, en algunos momentos, puede dividirse en subgrupos.
- Equipo de coordinación sociosanitaria
- Equipo de trabajo de servicios sociales.

Esta organización puede sufrir algún cambio a lo largo del proceso.

Los principales trabajos a realizar en cada grupo operativo (4-6 inicialmente) son los siguientes:

1. Análisis del diagnóstico detallado de la situación inicial por grupos, profundizando en la adecuación del cuidado de Deba a lo definido en el ecosistema, a los principios y el modelo de atención establecido.

2. Analizar la necesidad de la formación necesaria de cada ámbito.

3. Generar o demostrar respuestas, soluciones y nuevas oportunidades a las necesidades detectadas tanto en la fase de diagnóstico como en otros grupos operativos y compartidas en el grupo motor.

El grupo estratégico estará en marcha antes de la puesta en marcha de los grupos mencionados. Será un espacio de trabajo constituido por responsables técnicos y políticos del Ayuntamiento y el equipo técnico de la empresa adjudicataria, que tendrá que participar en el mismo, como centro de coordinación del proyecto/proceso. En este grupo, podrán participar también las personas expertas o representantes que las

responsables municipales determinen durante la vigencia del contrato.

Aholkularitza emango duen lantaldeak laguntza, aholkularitza eta prestakuntza eskainiko ditu parte-hartze gune guztietan eta talde horien dinamizazio eta jarraipenaren arduraduna izango da.

El equipo de trabajo que prestará el asesoramiento ofrecerá apoyo y formación en todos los espacios de participación y será responsable de la dinamización y seguimiento de estos grupos.

Lantalde horrek hausnarketak eta ekarpenak egin beharko ditu, eta bere jarduera-esparrutik lan egin beharko du ekosistema sortzeko helburuari erantzuteko eta tokiko esparrutik udal-zaintzaren eredu bat mantentzeko.

Dicho equipo de trabajo deberá plantear reflexiones, aportaciones y trabajar desde su ámbito de actuación para responder al objetivo de crear el ecosistema y mantener un modelo de cuidados municipal desde lo local.

Talde guztietan egingo diren lan-saioetan, metodologia berritzaileak erabiliko dira, talde bakoitzari egokitutako dinamikekin, Informazioa biltzeaz gain, sormena sustatuko duen prozesu parte-hartzaile bateratua, erakargarria eta aberatsa ahalbidetuko dute, zainketen inguruko sormena eta hausnarketa sustatzeko.

En las sesiones de trabajo que se llevarán a cabo en todos los grupos, se pondrán en práctica metodologías innovadoras con dinámicas adecuadas a cada grupo. Además de recopilar información, permitirán un proceso participativo conjunto, atractivo y rico que promueva la creatividad y la reflexión en torno a los cuidados.

Esleipendunak aipatutako taldeei aholkularitza eman, lagundu eta dinamizatu beharko die, saio guztietan parte hartu beharko du, bilera guztietara joan beharko da sortzen diren gorabeherak bideratu beharko du, beharrezko aurretiazko lanketa/prestaketak egin beharko du, saioak prestatzeko lanak egin beharko ditu, ondorengo informazioa jaso, aktak egin, taldeak sortzeko beharrezkoak diren bitartekoak eman edota talde bakoitzaren etengabeko ebaluazioa egin, eta abar.

La adjudicataria deberá asesorar, apoyar y dinamizar los citados equipos, participar en todas las sesiones, asistir a todas las reuniones, canalizar las incidencias que se produzcan, realizar la elaboración/preparación previa necesaria, realizar las tareas de preparación de las sesiones, recoger la información posterior, levantar actas, proporcionar los medios necesarios para la formación de los equipos y/o realizar la evaluación continua de cada grupo, etc.

Talde bakoitzean egin beharrekoaz gain, esleipendunak bere gain hartuko du taldeen arteko koordinazioa eta sareen sorrera (harremana); izan ere, ekosistemaren integrazioak integraltasunetik jokatzea eskatzen du, begirada ekosistemikoa proiektuarena berarena baita.

Además de lo que las labores a realizar en cada grupo, la adjudicataria asumirá la coordinación y la creación de redes entre los grupos (relación), ya que la integración del ecosistema exige actuar desde la integralidad, toda vez que la mirada ecosistémica es propia del proyecto.

Kontratatu beharreko lan-taldeak ikuspegi hori izan behar du une oro. Horretarako, etengabeko ebaluazioa hartu beharko du

El equipo de trabajo a contratar deberá tener presente en todo momento este enfoque. Para ello deberá tener en cuenta la evaluación

kontuan, prozesuaren/proiektuaren ebaluazio osotik harago.

Aurreikusitako zeharkako beste zeregin batzuk:

- Gizarte zerbitzuetako taldeari aholkuak eta prestakuntza ematea, eredu berriak sortzen duen esku hartzeko eredu berriari dagokionez, arreta planen zehaztapen mailetara iritsiz.
- Herritarrekin, eragileekin, hau da, komunitatearekin lankidetzan aritzea, boluntariotzaren zeregina zein izan daitekeen aztertuz eta landuz, zaintza-ekosistemaren parte izango den sare antolatu bat eraiki eta horren oinarriak ezartzeko.
- Udal teknikariek eskatutako dokumentazioa egitea (txostenak, memoria, egiaztagiriak, dirulaguntzekin zerikusia duten dokumentua…)
- Udaleko komunikazio-taldearekin batera komunikazioari buruzkoa landu eta kudeatzea, Debako zaintza eredua zabaltzeko.
- Udalaren agenda paraleloa antolatzeko koordinazioan parte hartzea, sentsibilizaziora bideratuta.

Orain arte aipatutakoaz gain, kontratua indarrean dagoen bitartean lan ildo berriak eta ekintza zehatzak martxan jartzea aurreikusten du Udalak Erakunde esleipendunak ekin beharko die lan horiei, edo lan hori egingo duen taldearekin koordinatu beharko ditu. Esku-hartzearen xede diren arloek hiru esparru nagusi dituzte:

Reconocimiento político y social de las tareas de cuidado.

Zaintza-lanen banaketa erantzukidea.

continua más allá de la evaluación completa del proceso/proyecto.

Otros quehaceres colaterales previstos:

- Asesorar y formar al equipo de servicios sociales en el nuevo modelo de intervención que genera el nuevo modelo, llegando a los niveles de concreción de los planes de atención.
- Colaborar con la ciudadanía, con agentes, es decir, con la comunidad, analizando, trabajando sobre cuál puede ser el papel del voluntariado, con el objetivo de construir y sentar las bases de una red organizada que forme parte del ecosistema de cuidados.
- Elaborar la documentación requerida por el personal técnico municipal (informes, memoria, documentos justificativos, documentos relacionados con las subvenciones...)
- Elaborar y gestionar, en colaboración con el equipo de comunicación del Ayuntamiento, lo relativo a la comunicación para la difusión del modelo de cuidados de Deba.
- Participar de la coordinación para organizar la agenda paralela del Ayuntamiento, dirigida a la sensibilización.

Además de lo mencionado hasta ahora, el Ayuntamiento prevé la puesta en marcha de nuevas líneas de trabajo y acciones concretas durante la vigencia del contrato; Estas deberán ser abordadas por la entidad adjudicataria o coordinadas con el equipo que lo lleve a cabo. Las áreas sobre las que se interviene se centran principalmente en tres ámbitos:

Reconocimiento político y social de las tareas de cuidado.

Reparto corresponsable de las tareas de cuidado.

Zaintzaileen lan-baldintzak eta bizi-baldintzak duintzea.

Dignificar las condiciones laborales y las condiciones de vida de las personas cuidadoras.

7.- ORDUAK

Proiektua gauzatzeko 1185 lanordu beharko direla aurreikusten da.

7.- HORAS

Para la ejecución del proyecto se estiman necesarias 1185 horas de trabajo.